


KUKU PASOTA



JESSE 88

Eragilea: Fermín Iraolagoitia

Egilea: Félix Zubiaga

Marraskilaria: Jesús Antonio Ruiz

Margoa: Ernio, S. L.

Depósito Legal: BI-521-84

Argitaratzailea: IKA, Euba. Tnoak 673 04 86 - 673 18 50

Argitaletxea: Ibaizabal



KUKU PASOTA

R-FF-1

FELIX ZUBIAGA

San Jose loreak idegi ziranean, marti-zozoa txistua joten hasi zan eta, marti-zozoa txistuka hasi zanean, Udabarri lotzorrotik itxartu zan.

—Ene! Laster doguz hemendik turistak; loretegiak lorez, zelaiak bedarrez eta basoak orriz jantzi behar dodaz —inon Udabarririk, nagiak kentzen iharduala.— Ba noa, ba noa! Noan arin.

Udabarri lanean hasi zanean, errekaldea irribarrez eta zulgaitzak txibuka hasi ziran. Txindorrak sagarditik igaroten ikusi eban Udabarri, lore-potinak idegi ziran une hatantxe.

—Txiroli, firolifi...— agur zolia egin eutsan txindor-aiteak Udabarriri.

—Neuk lagunduko deunak etxea antolatzen —agindu eutsan txindor-ameak Udabarriri, sagarrondoak zuriz jantzi ziranean.



JESSE-83

Udabarri barrezka aldendu zan, ezer erantzun barik eta txindor-amea bertatik oroldizko etxetxoa egiten hasi zan, bedarizpiak, lumatxak eta nahaste.

—Firoli-fi, txirol... Zer darabilzu horren goizetik? —zirautsan txindor-aiteak txindor-ameari, hain arazotu ikustean.

—Ez dakizula? Udaratiak datoz bidean, turistak, ulertu daizun. Ostatua egin behar deutsegu -txindor-amea urduri baten, lanari lotu zan ostera ere, pikuz gaiak ipini, hatzaparraz zapaldu eta bularraz biribildu; burua jaso eta keinu egin eutsan txindor-aiteari. —Ha zelako dirutza itziko deuskuen!

—Dirutza dinostazu? Horrelan bada, lagundu egingo deutsut —arduratan jarri zan txindor-aitea ere, zotzak igaro, lumak igaro eta kanta eta kanta.

Etxe biribil-biribila osotu eben txindor gurasoak bien artean. Txikia, baina oso egokia, beroa, eta apatza. Ordurako Udabarri danetik ibilia zan eta udaratien berbots nabarmena entzun zan sagardian.



—“¿Se puede?” -atea jo eban Txindorrean turista apain batek.

—Bai, bai, kuku-andrea, “no faltaba más”. Etxean zagoz - inon diran ñakak egitsozan txindor-ameak kuku-andreari, erderakadaz lausengantzen ebalá.-” ¿Cómo no?

Diru apur bat ateratearren, txindor gurasoak, etxe guztia turista apainari itzi eta sagar-adarrean lo egiten eben. Hurrengo goizean ba dator txindor-amea eskaratza garbitu eta oheak egiten eta zer idoro ebalá, uste dozue? Arrautza bat ohearen erdi-erdian. Kukurik inondik ere ez.

—Ikusten dozu, gizona, kukuak zelako ordain-modua itzi deuskun? -zurtu begiratzen eutsan txindor-ameak txindor aiteari.- Zer egingo dogu?

—Zer egingo jako ba! -eroapeña hartzen eban txindor-aiteak. -Hara, ba dakizu, zer egingo dogun? Umetaldia aurrera atarateko sasoiá ere ba da eta, ornidu eizu habia hori eta inor ez da konturatuko...



JESSE-83


ALOKAGAI
DAGO

Txindor-ameak beste hiru arrautza erron ebazan eta txin-doraiteak "txiruli-firulifi", olerki barriak abesten jarraitu eban. "Ocupado" ipini eben etxeko ateburuan, kumak hazi artean udaratiak aldentzeko.

Handik aste batzuetara arrautzak heldu egin ziran eta txitoak azaletik urten egin eben. Erdian egoan txittoa beste hirurak baino handiagoa zan eta egunetik egunera sendoagoa etorren, jatunagoa ere ba zan eta.

—Ba dakizu, gizona, erdiko hauxe beste hirurak baino be ederragoa eta mardulagoa jatorkula? —zirautsan txindor-ameak txindor-aiteari.

—Arrautzetan be halatsu izan zan bai... —euli bat iruntzi eban txindor-aiteak.




Txitoak gose ziran eta gurasoak eulitan eta zizaretan gura-
aina igaroten eutsien. Habin lau buru jaso eta lau aho urduri
mugitzen ziran, mokauen txandea gorde gurarik, "orain niri, ge-
ro zuri, hurren besteari", baina zera! Erdiko aho handi ase ezi-
nak, burua besteak baino gorago jasorik eta pikua besteak baino
gehiago idekiz, txandea kentzen eutsen batari eta besteari, aho-
kada gehienak ohostuz.

—Erdiko honexek urten behar deuskun bedeinkatua! —
harrotu egiten zan txindor-amearen kolkoa eta itxutu haren
begiak, bat haren gorakadea ikustean.

—Kontuz beragaz! —ohar egin eutsan behin txindor-aiteak.—
Ez zakioz larregi hurreratu, iruntzi ez zagizan.

—Ene ba! Esatea be! —txantxetan hartu eban txindor-ameak
txindor-aitearen oharra.

Erdiko txitoaren mardulak eta indarrak liluratuta eukan
txindor-amea eta ez zan konturatu ere egiten, beste egaleko
gaisoak, hainbesteko barauaz, egala joten egozela. Ia zutuntzen
ere ez ziran ausartzen, anaiorde zakarraren egokadak ez eroatea-
rren, ia ahorik ere ez eben idegiten. Zertarako ahorik idegi, aho-
kada danak tripa-zain halako harek kentzen baeutsezan?



Eta okerrena jaso zan. Ai ene! Bai tamala txindor-amearena hurrengo egun baten hiru txikiak bazterrean hilotzik aurkitu ebazanean! Haren larriak sagarrean goiko adarretik beheko adarrera, zorigaitza txindor-aiteari azaldu gurarik.

—Pit-pit-pit...- negarrez eta aiduru.- Nik ez dakit, bedar gaiztoren batek edo nongo areriok egin deuskun, ene!...

—Goseak hilgo ebazan, andrea -zentsuna, eroapena emotsion txindor-aiteak.- Banengo gosezto horren arduratan, baina ez nendun uste, horrenbestearino heldu eitekenik.

—Zer dinostazu, gizona, geure etorkizuna da eta?

—Berak ito dauazala bere tripa handiaren azpian.

—Esan be egitea geure ederrero honez...!

—Egin hurrengoan be negozio eta dirutza-amesak...

Eguneroko lanak ahaztu eragin eutsan txindor-ameari kuma txikien heriotza eta euliak eta zizareak iragoten ekiten eutsan goizetik gauera. Txindor-aiteak ez eutsan lagundu gura izan; ez eukan harez gero ez lanerako ta ez kanturako adorerik. Alperrikoak ziran "hau gure seme zatia, hau gure itxaropena" txindor-amearen goralpenak. Txindor-aitea etsita egoan.

—Zatoze, zatoze gure ederrero ikusten!- txindor-ameak-etxera gonbidatu ebazan auzoko amaikideak, zizaretan merkatura joan zanean.



Egunero eta bardin, gonbiteak gogaitgarri egiten jakezenez, "goazen ba, ume bedeinkatu hori ikusten" esan eben auzoko amaikideak eta Txindorrenera joan ziran. Txindor-kumea ikusi eta ez ziran gitxi harritzen.

—Bai, egoetan ba diaukan aitaren antzik harean -eragoioen mormoxetan amaikideak, irri zuriak trukatur.- Bai, mototxean harean amarenik...

—Ea, laztana, agur egitsezuz izekoei, sariak dakartzuez eta -zirautsan txindor-ameak kume kutunari, "txor-txor" gozoren bat itxaroela.

Kume gosetiak burua besteko ahoa idegiten eban inguruan, begiraleak eurak ere iruntzi beharrez.

—Gose izango don eta... -inotsen amaikideak eta altzotik sariak emoten hasi jakozan, kumeak janahala.


—Ea laztana, zelan esaten da? -gizabidea erakusten eutsan txindor-ameak kumeari.

—"Kuku" -erantzun eutsan kumeak, ahoa beterik.

—"Kuku" esan dau? Ze erderakada da hori? -barreka hasi ziran amaikideak.

—Ahoa beterik, oka eginik dagolako izango dozue -irria azpigordeka inon batek.

Barrearen barrez ondo asetuta joan ziran behintzat auzoko amaikideak Txindorrenetik, inguruko belarri guztiak berotzen egundoko lana hartzen ebela: "aiko, urliak ez diaukan ba kuku-semea etxean?"



Mormoxetak entzunik, txindor-amea lotsaren lotsaz paparreraino gorri-gorri gelditu zan. Txindor-aitea basotik etxeratu zanean, ez zan gitxi arduratu bere emaztearen gogaltzeaz.

—Zer jazoten jatzu, andrea, elgorria baino be gorriago ego-teko?

—Elgorria dinozu? Hau lotsaria daukaguna seme honegaz! Ez deust ba "kuku" erantzun, auzoko amaikideei agur egiteko eskatu deustadanean?

—Harako zera be! Eta gu geure eskolara egingo zalakoan! —txindor-aiteak, lotsa-arren, pikua gordeten eban hegapean.

—Esaten neuntsun nik, gehiago kantau behar zendula, umeak ikasi egian —agirika egitson txindor-ameak txindor-aiteari eta behingoan ardurazko begiak idegirik. —Ez zeuntsan umeari zera... aipatuko.

—Zer zera? Nik ala, andrea? Uste dozu nik erakutsi behar neuntsala umeari "aita" eta "ama" esaten?

—"Egun on" eta "eskerrik asko" behinipehin —aldikadeak hartu eban txindor-amea—. Ai ene! Seme honek hondatu egin behar gaitu!

—Negar eginaz bakarrik ez dogu ezer aurreratzen, andrea.

Txindor-aitea, lotzariak alde batera itzi, pikua hegapetik atera eta sagar-adarrik gorenera igonez, "txirolifiroli-fi..." zoli eta luze abesten ekitson, kantua halako samin-bustiduraz kutsatzen ebala. "Ea, etxeko eskola entzunaren-entzunaz baldarto horrek ganoraz berbetan ikasten deuskun" usteak adorea emotson.



Txindor-amea lanpetuegi ebilen, mindurikatan astia emoteko. Ume-zati haren ahoa betetzeak behinenezko arazoa emoten eban eta gero gerokoak. "Handi egin daitenean, ikasiko dau gure laztanak", esaten eutsan bihotzak.

Egunak joan, egunak etorri, Udabarri sagarditik itzuli zanean, Txindorrenera halako irritxoaz begiratu eta urrunetik agur egin eutsen.

—Nork esan ete deutso gurea!— barruko harrak jaten eban txindor-amea, Udabarri apain. irritsu errekalderantz joaten ikustean.

Zozoen, marti-zozoen eta sastrakako besteen txistu izekariak eta auzoko amaikideen harako txutxuputxuak amaibakoak ziran:

"Kuku eta kuku,
zer dinozu?
Kuku barik,
eusker a eizu".

Udaratiak oster a ere Txindorrenera hurreratu ziran "kuku? Kuku?" itaunka.

—Burlezar diabilkuz, ene! —atostean ezkutaku zan lotsarren txindor-amea.

—"Kuku! Kuku!"— erantzun eban orduan barrutik kume potoloak eta hegoak trakezto aztinduz, atzerriko udaratiei jarraiki joan zan.



—Ikusi dozu hori? - amatasun guztia urratu jakon txindor-ameari, seme edo zalakoaren atzetik jarraitzeko ez zala; ateetan zurtuta gelditu zan.

Txindor-aiteak ez eutsan erantzun. Berari ere zurrundu egin jakozan eztarriko hariak eta antzi-soinu batek ere ez eutsan urteten.

Txundioa apur bat joan jakenean, etxeko ateetan, alkar konsolatzen eben txindor gurasoak eta euren paparreko gorriz-kea-arren, egundo inongo kukuri aterik ez idegiteko asmoa hartu eben.

